

## Generoen pertzepzioa denboran zehar: sortzeko askatasuna

XVIII mendean, ilustrazioan, **neoklasizismo** izeneko mugimendua aurkitzen dugu. Autore hauentzako balore garrantzitsuena arrazoimena da, eta antzinako Grezia eta Erromarekiko miresmen handia dute eta hauek imitatzen saiatzen dira. Imitazio honek arau batzuk sortzera daramatza, garai klasikoetan egiten zena derrigorrez bete behar da, adibidez, batasunaren araua: ezin dira nahasketak egin, tragikoa komikoarekin, prosa poesiarekin... Ondorioz, ezinezkoa da generoak nahastea, adibidez, antzerkian, edo tragedia edo komedia egin behar da.. Horrela, sortzeko askatasuna guztiz mugatzen dute.

Hurrengo mendean, honen guztiz aurkakoa den **erromantizismoa** kokatzen da. Aurrekoentzat garrantzitsuena arrazionalismoa bazen, orain erromantikoek antiarrazionalismoa bultzatzen dute. Erromantikoen nahi nagusietako bat askatasuna da, eta horregatik sortzeko askatasuna aldarrikatzen dute. Horrela, neoklasizismoan ezarri ziren arau guztiak suntsitzen dituzte eta aurrekoentzako funtsa batasunean bazegoen, hauentzako nahastea eta haustura dira oso hitz garrantzitsuak. Ondorioz, generoen arteko diskriminazioa apurtzen dute nahasketa sakon bat emanez: tragikoa komikoarekin, polita itsusiarekin, bertsoak prosarekin, errima desberdinak... Orain arte artearen sormena arrazoimenetik egiten bazen, orain irudimena, irrazionalitatea... goraiatzen dira.

Artearen munduari bide amaiezinak irrikitzen dizkiote, eta testuinguru honetan ulertu behar da "Rapsodia" genero musikalaren sorrera. Erromantikoek, antzinako greziar kulturako rapsodia hartzen dute konposizio musikal mota bat sortzeko. Horrela, rapsodia izeneko abestiak sortzen dituzte: atal ezberdinez osatutako konposizioak, elkarren artean harremanik ez daukatela diruditenak. Bohemian Rhapsody abestian ikus daitekeen bezala, atal hauek edozein genero, erritmo, gai... dute. Garai neoklasikoan sortzea ezinezkoa izango zen konposizio bat da, izan ere, arrazionalismo eta batasun printzipioak errotik hausten ditu. Ezinezkoa da genero konkretu batean kokatzea, balada, rocka, opera... biltzen dituelako.

Horrela, horren garrantzitsua iruditzen zaidan sormen askatasunaren printzipioa jarraitzen du eta neoklasizismoko arau suntsiketaren adibide garbia da. Nire ustez, arteak ezin ditu arau batzuk finkatuta izan, honek mugak egotea suposatzen duelako. Bakoitzak bere barnean duena kanporatzea da artea, eta kanporaketa horrek ezin du inongo mugarik izan.